

5. ELIKAGAIAK LORENTXOREN BUKAERAKO GUTUNA

Kaixo, kaixo:

Zer moduz zabilzate Lurreko txoko horretan? Ni oso ondo nago, poz-pozik, zoriontsu, feliz!

Zer, ikasi dituzue elikagaien izenak? Jan duzue ogitartekoa? Bai? Ze ondo! Beraz, nik proposatutako lantxoak bete dituzue! Pozten naiz!

Oraingoan... Bai! berriz ere! beti bezala! beste lantxo batekin nator zuengana: bi jolas ekarri dizkizuet!

Lehenengoa denda jolasa da eta zuek dendak antolatu, apaindu, hornitu beharko dituzue, gero, noski, saltzeko eta erosteko! Eta bigarren jolasa jatetxe jolasa da: su artean arituko zarete menu gozoak prestatzen eta jaten.

Behar duzuen guztia zuen hezitzaileari eman diot. Galdetu berari, berak esango dizue zer eta nola egin behar duzuen!

Ondo pasa
mahaspasa!

Gero arte
Bonaparte!

Lorentxo

